

Felix Linares eta Enrique Martin, irakurketa sustatzeagatik sarituak

Radio Euskadiko 'Pompas de papel' saioko arduradun gisa egiten duten lanagatik saritu dituzte. Banaketa ekitaldia irailaren 30ean izango da. Irudia handitu

Radio Euskadiko 'Pompas de papel' saio beteranoak 2010eko Irakurketa Sustapenaren Saria jaso du. Sari honekin, Felix Linares eta Enrique Martin kazetariak saioaren arduradun gisa egiten duten lana goraipatu du Espainiako Editoreen Gremioen Federazioak. 'Literatura festa gisa aurkezteko egiten duten lana, eta irakurketa proposamenzorrotz eta, era berean, dibertigarriak egiteko ahalegina' azpimarratu dute editoreen federaziotik.

Pompas de Papel saioarekin batera, Efe agentziako 'Kultura' atala eta La2 telebista kateko 'Página 2' saioa ere saritu dituzte. Aurtengo edizioan Burgosek Udal Liburutegiak eta Murtziako Diego Marín liburu-denda ere saritu dituzte. Ohorezko Liber saria, berriz, Josep María Boixareu Vilaplana editore eta liburu-saltzailearentzat izango da.

Sari banaketa irailaren 30ean egingo dute, Bartzelonan, Liburuaren Nazioarteko Azokan.